

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2019 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Onestea 2018ko aurrekontu ekitaldia (2019rako luzatua) ixteko eragiketak eta ekitaldi horretako hondarren ordainketen arauketa

Arabako Lurralde Historikoaren ekonomia eta aurrekontu arauari buruzko Foru Arauak (53/92 Foru Araua, abenduaren 18koa) hau dio 80. artikuluan:

“Ekitaldi bakoitzaren aurrekontuak dagozkion urteko abenduaren 31n kitatuko dira, eskubide eta betebeharren aitopenean dagozkionez”.

2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatua ixtea eta likidazioa bera ere koordinatu eta arintzeko, beharrezkoa da horretarako kontabilitate eragiketak eta administrazio prozedurak arautzea, diren aurrekontuei dagozkienak, diren aurrekontuz bestekoei dagozkienak.

Halaber, 2019ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako hondarrak 2020ko ekitaldian ordaintzeko prozedura ezarri behar da.

Arabako Foru Aldundiaren Kontsulta Batzordeak irizpena ematea ez da nahitaezkoa, Diputatu Kontseiluaren martxoaren 30eko 40/1999 Foru Dekretuak 3.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera (dekretu hori otsailaren 15eko 4/2005 Foru Dekretuak aldatu zuen).

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehen. 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatuaren itxierako eragiketak onestea eta ekitaldi horretako hondarren ordainketa arautzea (Foru Dekretu honen eranskinean ageri dira).

Bigarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA

ERANSKINA

Lehena. Aplikazio eremua

Foru Dekretu honen edukia Arabako Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu itxierako eragiketei aplikatuko zaie, bai eta merkataritzako foru sozietateen, foru fundazioen eta foru partzuergoaren informazio igorketei ere.

Kontabilitate multzo hauei eragiten zaie: uneko ekitaldikoak (19.5.19, 19.5.18 eta 19.1.77), itxitako ekitaldietakoak (19.2.16, 19.2.17 eta 19.2.18), hurrengo ekitaldietakoak (19.6.20, 19.6.21, 19.6.22 eta 19.6.23) eta justifikatu beharreko eragiketak (19.4.09, 19.4.11, 19.4.12, 19.4.13, 19.4.14, 19.4.15, 19.4.16, 19.4.17 eta 19.4.18).

Bigarrena. Aurrekontu aldaketak

Aurrekontu aldaketak eskatzeko azken eguna 2019ko urriaren 18a izango da, salbu eta kasu hauetan:

1) Konpromiso kredituetako urterkoen doiketak eta egokitzeak dakartzatenak, edo konpromiso kredituak sortzea dakartzatenak; horiei dagozkien kontabilitate agiriei ez zaie aplikatuko hirugarren artikuluan xedatutakoa.

Aurrekontu egokitzeak, nolana ere, egokitu egingo zaizkie hurrengo ekitaldirako onetsitako aurrekontu proiektuan —edo dagokion aurrekontu luzapenean— izendatutako zenbatekoei.

2) "Langile gastuak" izeneko 1. kapituluei eragiten dietenak.

3) Kontabilitate egozpen egokia egiteko beharrezkoak direnak.

4) 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatua itxi eta likidatzeko prozesuari buruzkoak.

5) Kreditu gaikuntzak, artikulua honetan mugatuz ezarritako data baino geroago gauzatutako diru-sarrera handiagoen ondoriozkoak.

Hirugarrena. 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatuari eta uneko eta hurrengo ekitaldien multzoei idagozkien agiriak jasotzeko datak

Kontabilitate agiriak eta agiriak kontabilitate erregistroan jasotzeko azken muga gisa ezartzen dira honako hauek, ondoren Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak kontu hartu eta kontabiliza ditzan:

1) 2019ko urriaren 21era arte.

"A" agiriak, baimentze eragiketengatik.

"A" fasean kontabilizatzeko eragiketarako indarrean dagoen administrazio prozeduratik ondorioztatzen bada ezen diruaz ez dela xedatuko ondorengo apartatuetan ezarritako azken data baino lehen, "A" agiria onestea eta baliozkotzeak ez du ekarriko haren luzapenik.

2) 2019ko azaroaren 12ra arte.

"D" agiriak, xedatze eragiketengatik.

3) 2019ko azaroaren 22ra arte.

a) Hurrengo ekitaldietako multzoei bakarrik eragiten dieten kontabilitateko agiriak, "A", "AD" eta TAEG "A" faseetan, eta haien barrak.

b) Sortzapena 2019ko ekitaldian duten eragiketei lotutako kontabilitate agiriak:

• "AD" agiriak, baimentze eragiketengatik. Xedatzea.

• "DO" agiriak: xedatzeko-agintzeko eragiketak; eta "DOK" agiriak, artikulua honen 9) f) puntuan aipatzen direnak izan ezik.

• “DO-status-J” agiriak eta “DOK-status-J” agiriak justifikatu beharreko xedatzeko-agintzeko eragiketak.

5) 2019ko abenduaren 9ra arte.

a) “ADOK-J” agiriak: bidaiak gastuetarako aurrerakinak, kutxa eta kontu baimenduetako aurrerakinak eta tratamendu hori eskatzen duten beste batzuk.

b) Hurrengo ekitaldietako multzoei bakarrik eragiten dieten kontabilitateko agiriak, “D” “TAEG AD” eta “TAEG D” faseetan, eta haien barrak.

c) “AD” agiriak, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 19ko 27/2018 Dekretuaren 3. artikuluan sartutako kontratuak gauzatzen dituztenak.

6) 2019ko abenduaren 26ra arte.

“MDK” agiriak: sarrerak itzultzeko eragiketak.

7) 2019ko abenduaren 27ra arte.

a) Gastu aurrekontuaren agiriei dagozkien ordainketak. Data horretan egin ez direnak 2020ko aurrekontuaren aurreko ekitaldietako hondarren dagokion multzokatzearen kontura gauzatuko dira, Dekretu honen hamalagarren artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Diru-sarrerak itzultzeko “MDK” dokumentuei dagozkien ordainketak.

8) 2020ko urtarrilaren 13ra arte.

a) Diru-sarrerei buruzko agiriak.

b) 2019ko ekitaldiari dagozkion ordainagiriak. Ekitaldi horretakoak direla joko da Ordainagiriaren Erregistroari egozteari dagokionez.

Egun horretatik aurrera, erregistroan jasoko diren faktura guztiak 2020ko ekitaldiko aurrekontuari egotziko zaizkio.

9) 2020ko urtarrilaren 17ra arte.

a) “O” (ordenación) edo “OK” agiriak.

b) “O-status-J” agiriak: justifikatu beharreko agintze eragiketak, edo “OK-J” agiriak.

c) “ADOK” agiriak: ordainketak baimentzeko, xedatzeko, agintzeko eta proposatzeko eragiketak (Foru Gobernu Kontseiluaren 2018ko ekainaren 19ko 27 zenbakiko Foru Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen dira), eta haiei dagozkien “RCP” agiriak.

d) “J” agiriak: gastuetarako baimendutako kontuak eta kutxak, bidaiak gastuak etab. justifikatzeko agiriak, aldez aurretik justifikatu beharreko aurrerakinen bidez izapidetu direnak.

e) “DOK” agiriak: administrazioak egiten dituen obren ondoriozko eragiketei dagozkien ordainketak xedatzeko, agintzeko eta proposatzeko eragiketak.

f) A, AD eta D agiriak, aleko prezioekiko kontratuak gauzatzearen ondoriozko zenbateko izendatuaren gehikuntza dela-eta izapidetzen direnak.

10) 2020ko martxoaren 27ra arte.

a) 2019rako programatutako helburuen betetze mailaren inguruko txostena.

b) Sail bakoitzak kudeatzen dituen dirulaguntza lerroen emaitzei eta ondorioei buruzko txostena. (Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren jarraipena).

11) Ebazpenak onestea (2019ko abenduaren 31).

a) 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, ezingo da onetsi eduki ekonomikoa duen ebazpenik likidatzeko bidean den 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatuarenik, salbu eta aurreko 9) d) apartatuan aipatzen diren agirien frogatiriak onesteari dagozkionak.

b) "A", "AD", "ADO", "ADO-J", "D", "DO" eta "DO-J" agiriei buruzko ebazpenak kontabilitate erregistroari jakinarazi behar zaizkio, beranduenez ere 2020ko urtarrilaren 7a baino lehen. Ebazpen hori ez dagoenean, ezabatu egingo dira agiriak.

Laugarrena. Itxitako ekitaldietako multzoei buruzko agiriak jasotzeko epealdiak

Kontabilitate erregistroan kontabilitate agiriak jasotzeko azken data gisa ezartzen dira honako hauek, ondoren Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak kontu hartu eta kontabiliza ditzan:

1) 2019ko abenduaren 31ra arte: 19.2 taldeko "K" ordainketa agintzereko agiriak.

2) 2019ko abenduaren 31rako ordaintzeko agindu ez diren gastuen hondarrak banan-banan justifikatu beharko ditu dagokion Sailak, 2020ko urtarrilaren 7a baino lehenago, hondar gisa har daitezen edo ezpabere Diruzaintza Orokorrenak bihur daitezen.

3) Edonola ere, aurreko puntuan ezarritakoaren arabera ezabatzen diren hondarrak hurrengo ekitaldi batean ordaindu behar badira, orduan indarrean dagoen aurrekontu arruntaren kargura ordainduko dira.

4) Diru-sarreraren hondar tributuz besteko 2019ko abenduaren 31rako artean ordaintzeke daudenak direla-eta, dagokion Sailak txostena egin beharko du, kobratzeko egindako kudeaketak nola egiten diren zaintzearen.

Bosgarrena. Aurrekontuz kanpoko eragiketei dagozkien agiriak (19.1.77 multzoa) jasotzeko epealdiak

Kontabilitate Erregistroan kontabilitate agiriak onartzeko azken eguna eta xedapen zatiko hamabosgarrenean kontabilitate agiriak sartzeko ezarritakoa berbera izango dira. 2020ko ekonomia ekitaldian egiten diren eragiketak 20.1.77 multzoari egotziko zaizkio.

Seigarrena. Justifikatu beharreko eragiketen multzoetako agiriak jasotzeko datak

Kontabilitate Erregistroan kontabilitate agiriak onartzeko azken eguna eta xedapen zatiko hamabosgarrenean kontabilitate agiriak sartzeko ezarritakoa berbera izango dira. 2020ko ekonomia ekitaldian egiten diren eragiketak 2020ko ekitaldiko dagozkion multzakatzeei egotziko zaizkie.

Zazpigarrena. Eragozpenak edo ukoak

1) Kontu hartze eta Kontabilitate Zerbitzuak edo Aurrekontu Zerbitzuak egindako eragozpenen edo errefusaren txostenaren xede izan diren kontabilitate agiritarako, behin eragozpen edo errefusatzeko zio horiei konponbidea emanik, Dekretu honetan ezarritako epeak betetzen ez badira, bi egun baldiodun gehiago izango dituzte ezadostasun txosten hori ematen denetik aurrera, berriz ere Kontabilitate Erregistroari igortzeko.

2) Desadostasuna berretsi egiten bada, eta, beraz, beharrezko gertatzen bada Diputatuen Kontseiluaren 1992ko urriaren 27ko 792. zenbakiko Foru Dekretuaren arabera izapidetzea ("Ohar-tarazpen ekonomikoak izapidetzea"), 2020ko otsailaren 11ra arte izango da hura baliozkotzeko aukera.

Zortzigarrena. Ordainketen itzulketak eta diru-sarreraren itzulketak

1) 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatuko ordainketen itzulketa guztiak 2020ko aurrekontu arrunteko diru-sarreratzat hartuko dira, eta "Aurrekontu itxietako itzulketak" kontzeptuarekin egotziko zaizkio.

2) 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatuko eta aurreko ekitaldietako aurrekontuetako diru-sarreraren itzulketa guztiak 2020ko aurrekontuko diru-sarreraren murrizketatzat hartuko dira, edo aurrekontu horretako berroretako gastutzat, bestela.

Bederatzi. 2020ko ekitaldiko aurrerakinak

2020ko aurrekontu arrunta onesten denetik aurrera "ADOK-J" kontabilitateko agiriak (bidaia gastuetarako aurrerakinak, baimendutako kutxa eta kontuen aurrerakinak, eta tratamendu hori eskatzen duten beste batzuk) izapidetu ahal izango dira. 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatuari dagokion aurrerakinen bat justifikatzeke egonez gero, behar bezala justifikatuta egon beharko da ("J" agiria) 2020ko aurrerakina ordaintzeari ekin baino lehen.

Hamargarrena. Ordainagiriaren Erregistroa

2020ko urtarrilaren 17rako ordaintzeke dauden 2019ko Ordainagiriaren Erregistroko ordainagiriari tratu hau emango zaie:

1) Kontabilitate egozpenik ez egitea eragin zuten kausak azaltzeko txostena, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak fiskalizatu dezan eta aintzat hartu.

2) Ordainagiri bat, aurreko txosten hori kontuan hartuta, 2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatuan kontabilizatzea bidezko dela irizten zaionean, aurrekontuan jasotzeko fasean dauden Sail horren berorren kredituen finantzaketa lortuko da.

3) Nolanahi ere, 53/92 Foru Arauaren arabera (53/92 Foru Araua, abenduaren 18koa, Aurrekontu eta Ekonomia Araubideari buruzkoa) eta 21/2017 Foru Arauaren arabera (Arabako lurralde historikoaren 2018rako aurrekontua egikaritzeari buruzkoa) beharrezkoak diren aurrekontu aldaketak egingo dira 2018. urterako.

Hamaikagarrena. Aplikatzeko dauden eragiketak

1) Aplikatzeko dauden diru-sarrera guztiak eta norentzat izendaturik gabe dauden ordainketak, dagozkion banku-kontu korranteetan sartuta edo ordainduta egonik 2019ko abenduaren 31rako Foru Aldundiaren dagozkion kontabilitate erregistroetan jaso gabe daudenak (dela 2018ko aurrekontu orokor 2019ra luzatuan edo Aurrekontuz kanpoko Eragiketetan) behin analizatu eta bidezko direla determinatutakoan kontabilizatuko dira, 2019ko abenduaren 31ko datarekin. Horretarako, berariazko kontabilitate dokumentuen bidez kontabilizatuko dira, eta ez diete eragingo Dekretu honetan agiriak jasotzeko ezarritako datek.

2) Finantza Kudeaketako Zerbitzuak irekita dauden kontu korrante guztietan abenduari dagozkion bat etorrarazteak eragingo ditu, beranduenez ere 2020ko urtarrilaren 13rako.

Hamabigarrena. Ondare eragiketak

Jarduketak, diren aurrekontuan nahiz aurrekontuz kanpo jatorria dutenak, 2019ko abenduaren 31 baino lehen gauzatuak badira eta, 5/98 Foru Arauan araututakoaren arabera (otsailaren 23koa, "Arabako Lurralde Historikoaren ondareari buruzkoa") eta 769/90 Foru Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituz ("ondare kontabilitateari eta ondasunen erregistroari buruzkoa"), bidezko bada haiek Ondasunen Inbentarioan eta Ondare Kontabilitatean aintzat hartzea, 2019ko ekonomia aurrekontuko eragiketa gisa erregistratuko dira. Eragiketa horiek Ondasun Inbentarioan erregistratzeko epea 2020ko martxoaren 6an amaituko da.

Hamahirugarrena. Urteko kontuak egitea

Arabako Foru Aldundiaren urteko kontuak egiteari begira, Ondare Zerbitzuari igorriko zaizkio, 2020ko otsailaren 7a baino lehen, 2019ko abenduaren 31 baino lehenago amaitu eta "Abian den ibilgetzea" edo "Abian diren azpiegiturak" gisa erregistratuta dauden obrei buruzko espedienteak.

— Azken ziurtagiria, organo eskudunak dagokion ebazpenaren bidez onetsia. Obra proiektuen kasuan, obra gauzaten ez bada, jakinarazi egin beharko da hori.

Hamalauugarrena. 2019ko ekitaldiko hondarrak

2018ko aurrekontu ekitaldi 2019ra luzatua ixteko araei buruzko Foru Dekretuan arautu-takoaren arabera, baimena ematea Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzari ordain ditzan, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, aitortuta dauden baina ordaintzeke dauden betebeharrak guztiak, 2019ko abenduaren 31rako kontabilitatean erregistratuta ageri direnak.

Hamabosgarrena. Kontabilitate dokumentuak sartzeko epearen amaiera

Ezertan eragotzi gabe Dekretu honen aurreko artikuluetan ezarritako epeak betetzea, 2020ko urtarrilaren 17a izango da 2019ko ekitaldiari dagozkion kontabilitate dokumentuak Ekonomia eta Finantza eta Kontrol Sistemari (EFKS) sartzeko azken eguna.

Hamaseigarrena

Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzari igorri zizkieten, 2020ko lehen hiruhilekoaren barruan, sozietateen administrazio kontseiluek eta foru fundazioen organo eskudunek osatutako kontuak, 52/2013 Foru Dekretuan ezarritako eran (52/2013 Foru Dekretu horrek onetsi zituen urteko kontuak eta 8/2014 Foru Dekretua, hutsak zuzentzekoa).

Hamazazpigarrena

Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek onetsitako kontuak bidaltzeko epealdia

Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzari igorriko dizkiote, 2020ko apirilaren 30eko datarekin, kontu onetsiak, eta 52/2013 Foru Dekretuak agintzen duen informazioa helaraziko diote, zeinaren bidez onetsi baitziren urteko kontuen ereduak eta 8/2014 Foru Dekretua, hutsak zuzentzekoa.

Hemezortzigarrena

Urbide Arabako Ur Partzuergoan 2010ko apirilaren 1a baino lehen igorriko dituen Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzara indarrean den araudiaren arabera onetsitako kontuak.

Hemeretzigarrena

Foru Dekretu honetan aurreikusitakoaren aplikaziotik salbuesten da Arabako Batzar Nagusiek Foru Dekretu hau onetsi zenetik 2019 ekitaldia amaitu arteko epean onetsitako foru arauak egikaritzea.

Hogeigarrena

Baimena ematen zaio Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzari Dekretu hau garatzeko behar adina jarraibide eta arau eman ditzan

AGIRIAK KONTABILITATE ERREGISTROAN JASOTZEKO EPEALDIAK

AGIRIAK/FASEA	18/10	21/10	12/11	22/11	09/12	26/12	27/12	31/12	07/01	13/01	17/01	07/02	11/02	06/03	27/03	31/03
Aurrekontu aldaketak	X															
A agiriak		X														
D agiriak			X													
DO, DOK, DO-J, DOK-J				X												
AD agiriak				X												
Hurrengo ek. mul. agiriak (A, AD) (TAEG A) eta beren agiri barradunak				X												
ADOK-J agiriak					X											
Hurrengo ek. mul. agiriak (D) (TAEG AD eta D) eta beren agiri barradunak					X											
AD kontratu agiriak (27/2018 FDren 3. art)					X											
MDK agiriak						X										
Diruzaintza eta MDK ordainketak							X									
Ebazpenak onestea								X								
K agiriak: hondarrak								X								
Ebazpenen berri ematea									X							
18.2. TT hondarren frogagiriak									X							
Sarrerren agiriak										X						
2019ko fakturak										X						
Banku berdinkatzeak										X						
A, AD, D: aleko prezioen kontratuen ondoriozko gehikuntza											X					
SCEFen itxiera											X					
ADOK agiriak (fakturak) eta beraiei dagozkien RCP/ agiriak (27/2018 FDren 2. art.)											X					
O, OK, O-J eta OK-J agiriak											X					
Administrazio obren DOK agiriak											X					
J agiriak											X					
Helburuak betetzeari buruzko memoria															X	
"Abian diren obrak" eta "Azpegitura" amaituak jasotzeko aktak												X				
Ezezpenak/eragozpenak baliozkotzea													X			
Ondare eragiketen inbentarioa														X		
Merkataritza sozietateak eta fundazioak																X